

# DEKALOGOA

Harresi Boleibol Klubaren Zuzendaritza batzordearen lana da jokalarientzat boleibola jarduera atsegina eta osasuntsua izateko baldintzak sortzea, eta, formazio tekniko egokia emateaz gain, gizaki osoa izateko tresnak ere eskaintzea.

Klubaren balioen sustapena gizataldea osatzen dugun guztion esku dago: adizkidetasuna, esfortsua, talde-lana eta errespetua, adibidez, guztion ekarpenaren beharra dute.

Horretarako, jokalaria, entrenatzaile, zuzendaritzakide eta senideok era aktiboan jokatu behar dugu, joko garbia eta kiroltasuna gure klubaren ezaugarri bihurtuko dituzten jarrerak bultzatuz.

Ondorengo dekalogoan helburu hori lortzeko bakoitzak egin dezakeena zehazten saiatu gara.

## ZUZENDARITZA

Klubaren administrazioa eta ekonomia kudeatzeaz gain, bestelako konpromisoak ere baditugu, ondorengo puntuetan laburbil daitezkeenak:

- Kirol mailan nahiz maila pertsonalean, klubarekin zerikusia duen edozeinetan laguntzeko prest egotea.
- Klubaren kideak diren aldetik, seme-alaba nahiz gaztearen guraso eta senideek izan ditzaketen zalantzak eta kezkek argitzea.
- Suerta daitezkeen barne liskarretan bitartekari lana egitea, eta konpontzeko bideak jartzea.
- Klubaren irudiari edo bere kideei kalte egin ahal dieten barruko jarrerak zuzentzea.
- Klubaren izaera sustatzea, giroa sortuz, jokalaria guztiek barnera dezaten Klubaren partaide direla.
- Euskararen erabilera sustatzea elkartearen barruko funtzionamenduan eta kanpora begira ere.

### ENTRENATZAILEAK

- Zuzendaritza taldearen erabakiak onartu eta errespetatuko dituzte, nahiz eta batzuetan bat ez etorri edota ez ulertu. Zuzendaritzak du Klubaren antolaketa orokorraren ikuspegi osoena, eta, beraz, haiei dagokie norabidea ezartzea.
- Jokalariari irakatsi nahi zaizkien balio guztien eredu izango dira.
- Jokalariak taldearen parte senti daitezen, jarrera barneratzailea erakutsiko dute.
- Taldea era egokian zuzentzeko beharrezkoa den disziplina ezarriko dute.
- Beren jardunean, neurriak hartuko dituzte jokalaria guztiek parte-hartze aktiboa izan dezaten.
- Gaitasuna badute, euskaraz arituko dira, eta euskararekiko jarrera aktiboa erakutsiko dute.
- Puntualtasuna zorrotz errespetatuko dute.
- Euren prestakuntza teknikoa etengabe eguneratuko dute, horretarako klubaren laguntza osoa jasko dutelarik.

- Gizatalde baten kidea izateak, hau da, zure talde eta zure klubarena, lanerako konpromisoa eta hobetzeko ahalegina eskatzen ditu.
- Entrenamendu eta partidetara puntual iritsi, hutsik ez egin pisuzko arrazoi gabe. Entrenatzailea abisatu ezin bazara entrenamendu edo partidaren batera joan.
- Ekipoko kideekin adizkidetasunez joka ezazu, asmatzen dutenean zorionduz eta hutsegiteak egiten dituztenean animatuz.
- Klubaren materiala eta instalazioak zaindu, bai eta bisitatzen ditugun ekipoenak ere.
- Garaipenean nahiz porrotean jarrera duina erakutsi.
- Arerioak errespetatu, zu lehian aritzeko ezinbestekoak dira eta.
- Jokoaren arauak bete eta joko garbian jardun.
- Partidetara joaten den ikusleak errespetatu ezazu. Iraingarria gerta dakizukenez iruzkinik edo adierazpenik entzunez gero, ez erantzun.
- Errespetatu itzazu entrenatzailearen erabakiak, batzuetan ulertu ez arren: taldea zuzentzeko pertsona prestatuena da, eta partidetan nahiz entrenamenduetan argibide teknikoak eman diezazkizukeen bakarra.
- Arbitroen erabakiak errespetatu, eta bete kiroltasunez; haien lana zaila dela gogoan izan, partidak burutu ahal izateko ezinbestekoak direla.
- Onartu eta errespetatu zuzendaritza taldearen erabakiak, nahiz eta batzuetan bat ez etorri edota ez ulertu. Eurak dira Klubaren antolaketa orokorraren ikuspegi osoena dutenak, eta, beraz, haiei dagokie norabidea ezartzea.
- Lagundu klubari hala eskatzen zaizunean, eta parte hartu gure talde-ekimenetan.
- Ez ahaztu kirol klub eta herri baten ordezkari zarela une oro.
- Bizitza osasuntsu eta osasungarria egin.
- Gaitasuna duzun heinean, euskaraz aritu ekipokide zein entrenatzaile eta epaileekin.

### SENIDEAK ETA JARRAITZAILEAK

- Ahal duzun heinean, saiatu zure seme-alaba edo senideak dituen partidetara joaten, bidaiekin laguntzen, eta taldeari animoak eman harmailetatik.
- Hitz egin berarekin partidaren aurretik eta ondoren, gertatutekoa komentatu, beti ikuspegi positibo batez, aurreikuspenak eta emaitza kontuan hartu gabe.
- Ez eman agindu tekniko edo taktikorik, jokalariak nahas ditzakezu eta. Entrenatzailearen egitekoa da taldea zuzentzea; beste inorena ez.
- Ondo jokatzeko duenean zorion ezazu eta etsita dagoenean animoak eman.
- Goraipatu entrenamendu eta partidetan egin dituzten lan eta ahaleginak.
- Porroten aurrean jarrera positiboa erakutsi, hurrengoan zertan hobe daitekeen ikusaraziz.
- Epailearekiko duzun jarrera eredugarri izan dadin, errespetatu eta bete berak hartutako erabakiak, bere lanaren zailtasunak ulertuz; eta erabakiren batekin ados egon ez arren, enpatia erakutsiz: nola egingo genuke guk bere lekuan?
- Onartu eta errespetatu zuzendaritza taldearen erabakiak, nahiz eta batzuetan bat ez etorri edota ez ulertu. Eurak dira Klubaren antolaketa orokorraren ikuspegi osoena dutenak, eta, beraz, haiei dagokie norabidea ezartzea.
- Zure seme-alaben epaileen, arerio eta jokalarien aurkako adierazpen oro baztertu.
- Helburua da gure seme-alabek boleibolean aritzea; jardun osasungarri baten bidez, ondo pasatzea. Partidek jaia izan behar dute, beraz, bizipen desatsegin bihur dezaketen gorabeherak baztertu behar ditugu. Ez ahaztu guraso eta tutoreak garela seme-alabekiko eredu, eta gure jarrerak kopiatzen dituztela: guraso batek errespetua adierazten badu, seme-alabek berdin egingo dute.
- Gaitasuna duzun heinean, euskaraz aritu animoak ematen harmailetatik.